

Ondarruko andrak Ondarruko kale ixenetan!

Inguruko herriak bezala, Ondarroa ere herri matxista izan da, eta da. Bere sinbolo edota mitoei begiratu besterik ez dago, hori horrela dela ikusteko.

Herri kulturak emakumea leku txarrean ipini izan du gehienetan. Herri jakintzan, emakumea izaki aldakorra zen, inestablea. Ondarroan hego haizea andra haizea izan baita urte luzeetan. Mito tradizionalek mezu argia botatzen zioten emakumeari: besteen aginduak betetzen ez zituen, kalean gehiegi ibiltzen zena, kortxelera igotzen zen harri bihurtuta, Leokadi bezala. Izan ere, emakumeari zegokion lekua etxea zen, senarra zaintzen edota umeak garbitu eta lokartzen, Marixe Bekaineko horren adibide. Emakumea garbia eta birjina izan behar zen, sexualitaterik gabekoa ia, Antiguako Ama Birjinaren parekoa. Eta ezkontzatik kanpora “italiano txikixak” edukitzera ausartzen zenak herritarren kantak eta burlak entzun behar zituen.

Azken urteetan zerbait aldatu da. Herri mugimendu batzuek emakumearen irudiari buelta eman diote. Leokadik jaia eta poztasuna dakartza herrira, eta ezta isilik egoten. Bere iritzi sozial eta politikoak azaltzeko inongo lotsarik ez dauka. Turubi gazteen ikur bihurtu da, emakume konprometitua, bere sexualitatea aske bizi duena. Zapato Azulean ere emakume ahotsa zabaltzen da bozgorailuetatik, berak dioenari adi adi egoten da jendea. Eta Dinamartxak Egia-Iriondoren besteko garratzia hartu du.

Baina jaiak amaitzen direnean, emakumeak etxera buelta egiten du, sinbolikoki behintzat, fisikoki kalean egoten jarraitzen baitu. Horren adibide dugu kale izendegia. Ondarroan pertsona izena duten 12 kale eta eraikinetatik 11 gizonenak dira, eta emakumezkoek daukaten kale bakarrak, Antiguako Ama Birjinaren kaleak, emakumearen irudi oso atzerakoia eta itxia ematen du.

Zergatik dauka herriko eraikin batek Celedonio Arriola diktadura garaiko alkatearen izena, eta zergatik ez dago Julia Amilibia Bikandi izeneko edifiziorik herrian, berau Ondarroan hauteskundeetara aurkeztu zen lehenengo emakumea izan bazen? Herriko kale nagusia zergatik deitzen da San Inazio, eta ez Maria Diaz de Haro, emakume honek Ondarroa hiribildu lez sortu bazuen? Herria gizon batek fundatu izan balu, gizon hori kalerik gabe egongo litzateke gaur egun?

Emakume langile eta borrokalarien izenak geure kaleetan sartuta konturatuko gara (eta gure ondorengoak ere konturatuko dira) gure herrian andra beharginak egon direla, herria aurrera atera dutenak, eta euren eskubideen alde borrokan egin dutenak.

Urte osoan zehar generoen eta sexuen inguruko sinbologia aldatzen joan beharra daukagu. Emakume eta gizon eredu berriak geure espazio publikoan eta geure imajinarioan sartu behar ditugu: zainketez arduratzen diren gizonak, espazio publikoan eta politikan ausart dabiltzan emakumeak... Herri mailan halako ekintzak eginda, telebista edota publizitatearen bidez jasotzen ditugun emakume eta gizon eredu inposatzaile eta atzerakoi arriskutsuei aurre egiteko prestatuko gara.

Gora martxoaren 8a! Gora borroka feminista! Eta gora borroka horretan laguntzen duten emakume eta gizonak!